

Kutxabankek KZgunearekin elkarlanean “Ikasi online banka modu erraz eta seguruan erabiltzen” ikastaroa prestatu du

- **Ekimen honekin bat egin duen lehen erakundea izan da, edukiak garatzeko ezagutzak emanaz, bere app-tik "Kutxabank zurekin" webgunera.**

2025eko apirilaren 4an. Kutxabankek Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren baitan dagoen KZgunea Euskadiko sare publikoarekin elkarlanean onlineko bankuko kudeaketak pertsona guztientzat irisgarri bihurtzea helburu duen ikastaro berria atera du herritarrei teknologia berriekin lotutako ikaskuntza-prozesuan laguntzeko. Ikastaroa aurrez aurreko formatuan egingo da, 8 orduko iraupena izango du eta bi bloke nagusi izango ditu: alde batetik, bankuko izapidetzeekin lotutako kontzeptuak, berehalako ordainketak, zibersegurtasuna eta bestetik, web-aplikazioan eta app-an egin daitezkeen kudeaketan inguruko eduki espezifikoa, erabiltzaileek izan ditzaketan zalantzak argitzeko.

Onlineko banka teknologia berriek izandako aurrerapenaren adibidea da eta berebiziko garrantzia hartu edozein tokitatik eta edozein unetan kudeaketak egin ditzakegulako, berehala edo oso epe laburrean eta zero kostuan. Hala ere, online banka ulertzea eta erabiltzea zaila izan daiteke zenbait pertsonarentzat, bereziki adinekoen kolektiboaren kasuan.

KZguneak onlineko bankuarekin eta gehien erabiltzen diren izapidetzeekin lotuta herritarrek dituzten gaitasun digitalak hobetzeko ekimen berri bat sustatu du. Egitasmoak herritarrei, haien egunerokoan, online bankaren bidez egiten diren izapideei nola aurre egin diezaieketen irakastea da helburua.

Ekimenera gehitu den lehen entitatea Kutxabank izan da, eta hark bere ezagutzak eskaini ditu zeharkako edukiak garatzeko eta, ondoren, bere app-aren eta "Kutxabank zurekin" webgunearen eduki espezifikoak lantzeko.

“Ikasi online banka modu erraz eta seguruan erabiltzen” ikastaro berria KZgunearen prestakuntza-eskaintza eskuragarri dago eta aurrez aurreko formatuan eskaintzen da KZgunea zentroetan.

Ikastaroari buruzko informazio guztia KZgunearen webgunean dago eskuragarri:
<https://www.kzgunea.eus/eu/ikastaroak/-/1/xehetasuna/319>